

**LAN PARTEKATUAREN PLANA BABESTEKO
LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI
ESPEZIFIKOAK**

2026

**BASES ESPECÍFICAS PARA LA CONCESIÓN DE
AYUDAS DE APOYO AL PLAN DE TRABAJO
COMPARTIDO**

2026

ZIOEN AZALPENA

Oinarri hauen helburua da Lan Partekatua ren Plana Babesteko Laguntzak nola emango diren arautzea.

2008ko abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak (12/2008) 5. artikuluan adierazten duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak "pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea du xede, eta sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsonen eta harremanen buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez". Horretarako, hau azaltzen du prestazio ekonomikoek buruz: "Hartzaile dituztenen gizarteratzea eta autonomia sustatzeko xedea izan behar dute prestazio ekonomikoek, eta lagungarri izan behar zaizkie gizarteratzeko prozesuan, edo, haien mendetasun-edo babesgabetasun-egoerek eragindako beharrezan erantzun behar diete, aldi batez edo iraunkorki".

Laguntza horiek bi helburu dituzte.

Batetik, Donostiako familien gizarteratze maila hobetu nahi dute. Horretarako, Gizarte Ekintzako Zuzendaritzan, gizarte zerbitzuen erabilzaileak eta administrazioa akordio batzuetara iristen dira. Akordio horiek hainbat arauk erregulatzen dituzte eta, batzuetan, bizikidetza-unitateak ordaindu ezin ditzakeen gastuak dakartzate berekin. Lan Partekatua ren Plana Babesteko Laguntzek horrelako gastuetarako laguntza eman nahi diete pertsonen.

Bestetik, laguntza hauen helburua da horrelako pertsonen oinarritzko ondasunak eskuratzen laguntzea (bizilekua eta mantenua), baldin eta ezin badute pentsiorik edo diru sarrerak bermatzeko laguntzarik jaso.

Oinarri hauetan araututako beka k 2024-2026 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Estas Bases tienen por objeto regular la concesión de las Ayudas de Apoyo al Plan de Trabajo Compartido.

La Ley de Servicios Sociales (12/2008) de 5 de diciembre expone en su artículo 5 como finalidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales "*favorecer la integración social, la autonomía y el bienestar social de todas las personas, familias y grupos, desarrollando una función promotora, preventiva, protectora y asistencial, a través de prestaciones y servicios de naturaleza fundamentalmente personal y relacional*". Para ello, articula, entre otras, las prestaciones económicas, que "*se orientarán a facilitar la integración social y la autonomía de sus preceptores, sirviéndoles de apoyo en su proceso de integración social o garantizando la cobertura, temporal o permanente, de las necesidades derivadas de su situación de dependencia o desprotección*".

El objetivo de estas ayudas es doble.

Por un lado, pretende mejorar el grado de inserción de las familias donostiaras. Para ello, en la Dirección de Acción Social se establecen diversos acuerdos entre las personas usuarias de los servicios sociales y la administración, que están regulados por distintas normas y que en ocasiones supone la existencia de gastos que la unidad convivencial no puede permitirse. Las Ayudas de Apoyo al Plan de Trabajo Compartido pretenden apoyar a las personas en este tipo de gastos.

Y, por otro lado, el objetivo de estas ayudas es facilitar el acceso a bienes de primera necesidad (alojamiento y manutención) en casos en que no pueden acceder a pensiones o ayudas de garantía de ingresos.

Las ayudas reguladas en estas bases están contempladas en el Plan estratégico de Subvenciones 2024-2026.

1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

Lehenengoa. Xedea.

Oinarri hauek arautzen dituzten laguntzen helburua da Lan Partekatua Plan sinatzeak sortzen dizkien gastuetan familiei laguntzea, bai eta oinarrien arabera 2026. urtean onuradun izango diren pertsona eta/edo familien larrialdi ekonomikoko egoerei erantzutea ere.

Itzuli beharrik gabeko laguntzak izan daitezke, edota, bestela, aurrerapen gisa emandakoak; aurrerapenak badira, onuradunak jasotako kopuruak itzultzeko konpromisoa hartu beharko du.

Honako hauek dira laguntza horiek ematearen helburuak, 2024-2026 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ezarritakoaren arabera:

- Donostiako familien gizarteratze maila hobetzea.
- Horrelako pertsonen oinarritzko ondasunak eskuratzen laguntzea (bizilekua eta mantenua), baldin eta ezin badute pentsiorik edo diru sarrerak bermatzeko laguntzarik jaso.

Bigarrena. Printzipio nagusiak

Printzipio hauek arautuko dituzte Lan Plana Babesteko Laguntzak:

1. Ahal dela, eta oso neurri txikian bada ere, onuradunak Lan Partekatua Plan batean parte harrarazteko ahaleginak egingo dira, haren bitartez gizarteratze-prozesuaren inguruko konpromisoak (jarduerak) beren gain har ditzaten.
2. Izaera subsidiarioa dute, eta, hala badagokio, osatu egingo dituzte indarrean dagoen legediaren arabera onuradunari edo bizikidetzak unitateko kideren bati dagozkion beste gizarte-baliabide eta gizarte-prestazio ekonomiko batzuk, Planean ezarritako gastuak ordaintzeko direnak.
3. Oro har, laguntzak ezin dira erabili beste sistema batzuen gabeziak betetzeko. Horrenbestez, salbuespenak salbuespen, ezin dira erabili beste sistema publiko batzuen prestazioek barnean hartzen ez dituzten gastuak ordaintzeko, hala nola, osasun-, hezkuntza-, enplegu- edo justizia-sistema publikoen prestazioek barnean hartzen

CAPITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

Primera. Objeto.

Las ayudas que estas bases regulan, tienen por objeto apoyar a las familias en los gastos generados como consecuencia de la firma de Plan de Trabajo Compartido así como el atender a situaciones de urgencia económica de las personas y/o familias que conforme a las bases resulten beneficiarias durante el año 2026

Pueden ser ayudas otorgadas a fondo perdido o como adelanto con el compromiso del beneficiario/a de devolver las cantidades percibidas.

Los objetivos de la concesión de estas ayudas, según se establece en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 son:

- Mejorar el grado de inserción de las familias donostiaras
- Facilitar el acceso a bienes de primera necesidad (alojamiento y manutención) en casos en que no pueden acceder a pensiones o ayudas de garantía de ingresos.

Segunda. Principios generales

Las Ayudas de Apoyo al Plan de Trabajo, se regirán por los siguientes principios:

1. En la medida de lo posible y aunque sea a mínimos, se tratará de implicar a las personas beneficiarias en un Plan de Trabajo Compartido, a través del cual puedan asumir una serie de compromisos (actuaciones) en relación a su proceso de inserción.
2. Carácter subsidiario y en su caso, complementario con todo tipo de recursos y prestaciones sociales de contenido económico previstas en la legislación vigente que pudieran corresponder a la persona beneficiaria o a cualquiera de los miembros de la unidad de convivencia para afrontar los gastos previstos en el Plan.
3. Como normal general se ha de cumplir con el principio de no cubrir carencias de otros sistemas. Esto supone, salvo excepciones, que no se cubrirían conceptos que no contemplen entre sus prestaciones otros sistemas públicos como el de salud, educación, empleo o justicia.



ez dituztenak.

4. Betiere, lehenetasun handiagoa emango zaie babesgabe dauden edo babesgabe gera daitezkeen pertsonen interesei beste irizpide batzuei baino (adingabeak, mendetasun-egoeran daudenak, genero-indarkeriaren biktimak, etxerik gabekoak, e.a.). Ahultasun-egoera hauek araudi honek ezartzen dituen betebeharren salbuespentzat hartuko dira, kasu batzuetan.
5. Oinarritzko gastuak asetzeko gastueetarako laguntza albo batera utzita, eskatutako kopuruak beti ezagunak diren gastuetarako eskatuko dira. Gastu horiek jasota egon beharko dute proposamen-txostenean eta, hala badagokio, gastuak justifikatuko dira, dagozkien dokumentuen bitartez.
6. Laguntza horietarako 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotako berdintasun-adierazleak hartuko dira kontuan:
 - Emakumeengan eragina duen desberdintasun soziala kontuan hartzea proiektuaren etapa guztietan: hasierako diagnostikoan, proiektuaren helburuetan, proposatutako jardueretan eta ebaluazioan.
 - Proiektuan parte hartzen duten pertsonen bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak.
4. Se tendrá en cuenta en todo momento el principio de primar el interés de personas que puedan estar en riesgo o situación de desprotección como puedan ser menores, personas dependientes, víctimas de violencia de género o personas sin hogar, entre otras. Estas situaciones de vulnerabilidad podrán ser contempladas como posibles excepciones en la exigencia de requisitos que se establecen en estas bases.
5. Salvo en el caso de la ayuda destinada a la finalidad “gastos para la cobertura de necesidades primarias”, las cantidades solicitadas siempre tienen que hacer referencia a gastos concretos, que tendrán que estar identificados en el informe-propuesta y, en su caso, justificados con la documentación oportuna
6. Se atenderá a los indicadores de igualdad recogidos en el Plan estratégico de Subvenciones 2024-2026 para estas ayudas:
 - Atención a la desigualdad social que afecta a las mujeres en el diagnóstico de partida; en los objetivos del proyecto; en las actividades propuestas; en la evaluación
 - Medidas de conciliación de la vida personal , familiar y laboral de las personas participantes en el proyecto.

Hirugarrena. Lan Partekaturen Plana.

Akordio mota hauek Lan Partekatuaren Planarekin parekatu daitezke:

1. Arreta Pertsonalizatuko Plana. 2008ko abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak arautua. Lege horrek 8. artikuluan dioenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak *kasu bakoitzerako egokia den esku-hartzea diseinatuko du, beharrianak ebaluatuz arreta pertsonalizatuko plan baten esparruaren barruan; plan hori, arreta-ibilbideen jarraitasuna eta koherentzia bermatzearen, erabiltzailearen parte-hartzearekin egingo da eta ebaluazioko eta berrikuspen aldizkako mekanismoak jasoko ditu plana pertsonen beharriaz egokitzen zaien jakiteko.*
2. Kasu Bakoitzerako Arreta Plana. 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, haurrak eta

Tercera. El Plan de Trabajo Compartido.

Los siguientes tipos de acuerdo son equiparables al Plan de Trabajo Compartido:

1. El Plan de Atención Personalizada. Regulado por la Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios Sociales, la cual, en su artículo 8, establece que el Sistema Vasco de Servicios Sociales *"diseñará el tipo de intervención adecuada a cada caso, sobre la base de una evaluación de necesidades y en el marco de un plan de atención personalizada, que, al objeto de garantizar la coherencia y la continuidad de los itinerarios de atención, deberá elaborarse con la participación de la persona usuaria y deberá incluir mecanismos de evaluación y revisión periódica que permitan verificar la adecuación del plan a la evolución de las necesidades de la persona"*
2. El Plan Individualizado de Atención. La Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y



nerabeak zaintzeko eta babestekoak, honakoa dio 53.2 artikuluan: *Baldin eta oinarritzko gizarte-zerbitzuek uste badute komunitatearen esparrutik esku hartu behar dutela, kasu bakoitzerako arreta-plan bat egin beharko dute, eta, bertan, aurkitutako beharrezanez erantzuteko taxutu dituzten esku-hartzeak zehaztuko dituzte.* Kasu Bakoitzerako Arreta Plana, aurretik sinatu ohi den planak, *Parte Hartzeko Akordioa* izenekoak, ordezkatzeko.

3. Arreta Eskaintzeko Banan-banako Programa. 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, arautua. Honela dio lege horrek: *Mendetasun-egoerak eta horiei dagozkien prestazioak aitortzeko prozeduraren baitan, sistema publikoko zerbitzu sozialek arreta eskaintzeko banan-banako programa bat zehaztuko dute, eta horren barruan, premia duenarentzat egokiena diren aukerak zehaztuko dira, dauden zerbitzu eta prestazio ekonomikoen artean, betiere mendetasunaren gradua eta maila erabaki duen ebazpena oinarri hartuta; dena den, aldez aurretik onuradunari kontsultatu beharko zaio, edo bere familiari edo ordezkatzeko duten erakundeei, eta onuradunak aukeratu beharko du, hala behar duen kasuetan.*
4. Gizarteratzeko Programa Integratua eta Pertsonala. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko abenduaren 22ko 14/2022 Legeak arautzen du, eta honela definitzen du: "parte hartzen duen gizarteratze-zerbitzu bat da, eta alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute bazterketa-arriskua prebenitzeko eta hartzaileak laneratzeko eta gizarteratzen saiatzeko".

Laugarrena. Proposamen-txostena.

Proposamen-txostena espedientean jasoko den dokumentu bat da. Haren bidez, kasuaren ardura duen profesionalak bizikidetzaren eskatzailearen gizarte egoera azaltzen du eta proposamen bat egiten dio, laguntzak ematea dela eta, Lan Partekatua Plana Babesteko Laguntzetarako Batzorde Teknikoari. Zehatz esan, proposamen-txosten honek honakoak azaldu beharko ditu: bizikidetzaren unitatearen gizarte egoera, eskatutako laguntzekin zer ondasan edo zerbitzu eskuratu nahi dituen eta zer hobekuntza lortu nahi den bizikidetzaren unitatearen egoeran laguntzoi esker.

Bestalde, proposamen-txostenak oinarri hauetan edo

Protección a la Infancia y la Adolescencia, dispone, en su artículo 53.2, que *"en los casos en los que los servicios sociales de base estimen necesaria la intervención desde el ámbito comunitario, deberán elaborar un plan individualizado de atención en el que se harán constar las intervenciones diseñadas para responder a las necesidades detectadas"*. Este Plan Individualizado de Atención puede sustituirse por el plan que suele firmarse con carácter previo llamado *Acuerdo de Participación*.

3. El Programa Individual de Atención. Regulado por la Ley 39/2006 de 14 de diciembre de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, la cual establece que *"en el marco del procedimiento de reconocimiento de la situación de dependencia y las prestaciones correspondientes, los servicios sociales correspondientes del sistema público establecerán un Programa Individual de Atención en el que se determinarán las modalidades de intervención más adecuadas a sus necesidades de entre los servicios y prestaciones económicas previstos en la resolución para su grado y nivel, con la participación previa consulta y, en su caso, elección entre las alternativas propuestas del beneficiario y, en su caso, de su familia o entidades tutelares que le represente"*.
4. El Programa Integrado y Personal de Inclusión. Regulado por la Ley 14/2022 de 22 de diciembre del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión, la cual lo define como *"un servicio de inclusión participado en el que las partes suscribientes asumen compromisos en orden de prevenir el riesgo de exclusión y procurar la plena inclusión laboral y social de las personas destinatarias"*

Cuarta. El informe/propuesta.

El informe/propuesta es un documento que figurará en el expediente, mediante el cual el/la profesional responsable de caso expone la situación social de la unidad convivencial solicitante y hace una propuesta concreta al respecto de la concesión de las Ayudas a la Comisión Técnica para las Ayudas de Apoyo al Plan de Trabajo Compartido. En concreto este informe/propuesta deberá describir las circunstancias sociales de la unidad convivencial; el bien o servicio que se pretende adquirir mediante las ayudas solicitadas y la mejora en la situación de la unidad convivencial que se pretende obtener con ellas.

El informe/propuesta deberá exponer, así mismo,



horren eranskinan ezarritako beste edozein alderdi ere agertu beharko du.

Bosgarrena. Lan Partekatua Plana Babesteko Laguntzetarako Batzorde Teknikoa

Honako hauek osatuta egongo da Batzordea:

1. Lehendakaria: Gizarte Ekintzako zuzendaria
2. Idazkaria: Gizarteratzeko Zerbitzuko burua edo Buruzagitzari Laguntzeko teknikaria.
3. Ekintza Komunitarioko Zerbitzuko burua edo Buruzagitzari Laguntzeko teknikaria.
4. Hirugarren Adineko eta Ezgaitasuneko Zerbitzuko burua edo Buruzagitzari Laguntzeko teknikaria.
5. Prebentzio, Haur eta Famili Zerbitzuko burua edo Buruzagitzari Laguntzeko teknikaria.

Batzordea osatzeko, nahikoa izango da kide horietako hiru egotea, baina ezinbestekoa da lehendakaria eta idazkaria edo haien ordezkariak egotea.

Batzordeko gainerako kideek lehendakaria eta idazkaria ordezkariak izan behar dituzte, Administrazio Publikoen Zuzenbide Erregimenaren urtarilaren 1eko 40/2015 Legean ezarritako arauen arabera.

Hauek izango dira Batzordearen egitekoak:

1. Laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena egitea. Proposamen hori aginduzkoa eta loteslea izango da.
2. Laguntza hauek arautzen dituzten oinarriak hobetzeko proposamena egitea, sortzen diren behar berrietara egokitu daitezkeen hurrengo urteetarako.
3. Oinarri hauetako hainbat xedapenetan ematen zaizkion beste egiteko guztiak.
4. Betekizun batzuk betetzetik salbuesteko proposamena aztertzea eta sinatzea, 6. oinarriko 2. puntuarekin bat etorriz.

II. KAPITULUA. ONURADUNAK

Seigarrena. Onuradunak zein izango diren zehaztea. Betekizunak.

1. Laguntzen onuradun izateko, betekizun hauek bete beharko dira:

cualquiera otro aspecto que se determine en estas bases o su anexo.

Quinta. Comisión Técnica para las Ayudas de Apoyo al Plan de Trabajo Compartido

La comisión estará formada por:

1. Presidencia: Director/a de Acción Social.
2. Secretaría: Jefe/e del Servicio de Inserción Social o Técnico/a de Apoyo a la Jefatura.
3. Jefe/e del Servicio de Acción Comunitaria o Técnico/a de Apoyo a la Jefatura.
4. Jefe/e del Servicio de Personas Mayores y Discapacidad o Técnico/a de Apoyo a la Jefatura.
5. Jefe/e del Servicio de Prevención Infancia y Familia, o Técnico/a de Apoyo a la Jefatura.

Será suficiente la presencia de tres de estos miembros para la constitución de la comisión, siendo necesaria la presencia del presidente y del secretario o de sus sustitutos.

El presidente y el secretario serán sustituidos por el resto de miembros de la comisión conforme a las normas contempladas en la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas

Son funciones de esta comisión las siguientes:

1. Elaborar la propuesta de concesión o denegación de las ayudas con carácter preceptivo y vinculante.
2. Elaborar la propuesta de mejora de las bases reguladoras de estas ayudas para nuevos ejercicios en atención a nuevas necesidades que se presenten.
3. Aquellas otras que se le otorgan en algunas de las disposiciones de estas bases.
4. Analizar y suscribir la propuesta de exención del cumplimiento de algún requisito en los términos de la base 6ª, 2.

CAPITULO II. DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS

Sexta. Determinación de las personas beneficiarias. Requisitos.

1. Podrán ser beneficiarias de estas ayudas las personas que reúnan los siguientes requisitos:



a) Adinez nagusia edo adingabe emantzipatua izatea.

b) Donostiako udalerrian erroldatuta egotea. I. eranskinean ezarrita bezala, kasu batzuetan, gainera, erroldan gutxieneko denbora bat eramatea eskatuko zaie.

c) Bizikidetza-unitate baten partaide izatea. Bizikidetza-unitatez joko dira Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren alorrean indarrean dauden arauetan jasotako egoeretan dauden pertsonak.

d) Aurrekoa kontutan izanik, salbuespenak ere egin ahal izango dira, baldin eta etxebizitza edo bizileku berean bizikidetza-unitate bat baino gehiago bizi direla frogatzen bada. Gorabehera hori proposamen-txostenean jaso beharko da.

e) Onuradunak edo haren bizikidetza-unitateko kide batek Donostiako Udalarekin Lan Partekatuko Plan bat sinatu izana. Eskatzaileak oinarri hauetako eranskinetan berariaz aipatutako kasuetan baino ezin izango dira salbuetsiak izan betekizun horretatik.

f) Ez izatea baliabide ekonomiko nahikorik. Oinarri hauen ondorioetarako, kasu hauetako batean dagoen bizikidetza-unitateak betekizun hori betetzen duela joko da.

i. Bizikidetza-unitateak dituen baliabide ekonomikoak ez izatea Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko behar direnak baino handiagoak.

ii. Bizikidetza-unitatean esku hartzeko arrazoia izatea bere kideetako bat ahultasun-egoeran egotea (adingabeak, mendetasun-egoeran daudenak, genero indarkeriaren biktimak, e.a.), eta egoera ekonomikoa egiaztatzeko dokumentuak eskatzeak egoera are gehiago okertzeko arriskua ekartzea. Bizikidetza-unitateak hemen azaldutako egoeragatik jaso ahal izateko Lan Partekatua Plan Babesteko Laguntzak, beharrezkoa izango da gorabehera hori behar bezala azaltzea proposamen-txostenean.

a) Ser mayor de edad o menor emancipado.

b) Estar empadronado/a en el municipio de Donostia-San Sebastián. Según se dispone en el Anexo I en algunos casos se exigirá además un tiempo mínimo de empadronamiento.

c) Formar parte de una unidad de convivencia. Tendrán la consideración de unidad de convivencia (unidad convivencial), las personas que se encuentren en los supuestos recogidos por la normativa vigente en materia de Renta de Garantía de Ingresos.

d) No obstante lo anterior, podrán contemplarse excepciones cuando quede probada la existencia de unidades de convivencia diferenciadas que conviven en una misma vivienda o alojamiento. Esta circunstancia deberá figurar en informe/propuesta.

e) Haber suscrito, la persona beneficiaria u otro miembro de su unidad de convivencia con el Ayuntamiento de Donostia- San Sebastian un Plan de Trabajo Compartido. Las personas solicitantes solo podrán estar eximidas de este requisito en los casos que se hallen específicamente señalados en el anexo.

f) No disponer de medios económicos suficientes. A efectos de estas bases, se entiende que una unidad convivencial cumple este requisito cuando se encuentre en uno de estos supuestos.

i. Que la unidad convivencial disponga de medios económicos no superiores a los necesarios para que esa misma unidad convivencial pueda acceder a las Ayudas de Emergencia Social.

ii. Que el motivo de la intervención con la unidad convivencial sea la situación de vulnerabilidad de alguno de sus miembros (menores; personas dependientes; mujeres víctimas de violencia de género, etc..) y en las que la exigencia de la documentación acreditativa de la situación económica pueda degenerar en una situación de riesgo añadida. Para que una unidad convivencial pueda acceder a las Ayudas de Apoyo al Plan de Trabajo Compartido en base a este supuesto, será necesario que esta circunstancia se explique adecuadamente en el informe-propuesta.



- iii. BUK ez izatea dirulaguntza eskatzen den gastuari aurre egiteko ondare erabilgarriak, nahiz eta GLLen baremoetan sartu.

2. Bizikidetzaren unitatearen oinarritzko beharrak, hau da, mantenua eta bizilekua, ase gabe gelditzeko arriskua badago eta, batez ere, unitate horretan adingabeak edo mendetasun-egoeran dauden pertsonak bizi badira, Lan Partekatuen Plana Babesteko Laguntzetarako Batzorde Teknikoak salbuetsi ahal izango du bizikidetzaren unitate hori oinarri hauetan ezarritako betekizunen batetik. Kasuaren arduradunak eskasia-egoera eta salbuesteko proposamena azaldu beharko ditu berak sinatutako proposamen-txostenean.

Zazpigarrena. Lan Partekatuen Plana Babesteko Laguntzen onuradunaren betebeharrak.

1. Lan Partekatuen Planean bere gain hartutako konpromisoak betetzea.
2. Eman den helbururako erabiltzea laguntza.
3. Jarduera egin duela edo ondasuna nahiz zerbitzua eskuratu duela egiaztatzea, hamalagarren oinarrian ezarritakoa gorabehera.
4. Egin beharreko egiaztapen-jarduerak, Kontu-hartzailetzari dagozkion kontrol finantzariokoak egitea onartzea, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legeetan edo eskumen hori duten beste erakunde batzuen legeetan ezarritakoak ere. Horrez gain, kontrol-funtzioak gauzatzea erraztu behar du; batez ere, aukera eman behar du ikertu behar diren lokaletara sartzeko eta aztertu beharreko dokumentuak eskuratzeko, bai eta dokumentu horien kopiak lortzeko ere.
5. Xede bererako, beste edozein administrazio edo erakundetatik (publikoa nahiz pribatua, nazionala nahiz nazioartekoa) jasotako diru laguntzak edo bestelako laguntzak organo emaileari jakinaraztea, halakorik jaso bada.
6. Laguntza emateko kontuan hartutako egoeraren bat aldatu bada, aldaketa hori jakinaraztea.
7. Diru laguntzaren erabilera frogatzen duen dokumentazioa gordetzea, eta lau urtez izatea dokumentazio hori Udalak erabiltzeko moduan.

- iii. Que la UC no disponga de un patrimonio utilizable que permita hacer frente al gasto para el que se pide la ayuda, aunque éste entre en los baremos de AES.

2. En casos en que esté en riesgo la cobertura de las necesidades básicas de alimentación y/o alojamiento de la unidad convivencial y especialmente cuando en la misma hay menores o personas dependientes, la Comisión Técnica para las Ayudas de Apoyo al Plan de Trabajo Compartido podrá eximir a aquella del cumplimiento de alguno de los requisitos de esta base. Tanto la descripción de la situación de precariedad como la propuesta de la exención figurará en el informe/propuesta suscrito por el o la responsable de caso.

Séptima. Obligaciones de las personas beneficiarias de las Ayudas de Apoyo al Plan de Trabajo Compartido

1. Cumplir los compromisos adquiridos en el Plan de Trabajo Compartido.
2. Dedicar la ayuda al objeto para el que ha sido concedida.
3. Acreditar la realización de la actividad o la adquisición del bien o servicio, sin perjuicio de lo establecido en la base decimocuarta.
4. El sometimiento a las actuaciones de comprobación a efectuar, a las de control financiero que corresponden a la Intervención y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros órganos que tengan atribuida dicha competencia. Asimismo, están obligados a facilitar el ejercicio de las funciones de control, y en especial, facilitar el libre acceso a los locales y a la documentación objeto de investigación, así como la posibilidad de obtener copia de aquélla.
5. Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administración o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.
6. Comunicar la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la ayuda.
7. Conservar la documentación que acredite el empleo de la subvención, teniendo durante cuatro años a disposición del Ayuntamiento dicha documentación

Zortzigarrena. Lan Partekatua Plana sinatzeko betebeharretik salbuestea.

Gastu hauetarako laguntza 19eskatzen duten bizikidetzak-unitateek ez dute Lan Partekatua Plana sinatzeko betebeharrik izango.

1. Oinarrizko gastuak, sarrerarik ez duten eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren helmenetik kanpo dauden bizilekuetan bizi direnen kasuan (Monseko tutoretzapeko apartamentuak, Agipad, Gizakia Helburu, e.a.)

III. KAPITULUA. LAN PARTEKATUA PLANA BABESTEKO LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Bederatzigarrena. Eskaera eta dokumentazioa.

Interesatuak eskatuta hasiko dira laguntzaren izapideak egiten.

Eskaera Gizarte Zerbitzuguneetan, Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuan, Hirugarren Adina Zerbitzuan, Udal Gizarte Abegi Etxean edo Emukearen Zerbitzuan aurkeztuko da, 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eskaerarekin batera, interesatuak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu, onuradun izateko eskubidea duela frogatzeko:

1. Eskatzailearen eta bizikidetzak-unitateko gainerako kideen nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baten fotokopia.
2. Bizikidetzak-unitatearen egoera ekonomikoa egiaztatzen duten dokumentuak: banku-egiaztariak, pentsioen ordainagiriak, Gipuzkoako eta Estatuko ogasunek emandako ondasun-egiaztariak, nomina, langabezia-prestazioak, BEZaren aitortpena, e.a.
3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egindako dokumentuak ez aurkezteko. Horregatik, Donostiako Udalak inprimaki bakoitzean adieraziko du dokumentuak kontsultatu edo eskatu ahal izango dituela, interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat. Aurka eginez gero, interesdunak eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.
4. Gainera, aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organismoak ofizioz egiaztatu ahal izango ditu administrazio

Octava. Exención de la obligación de suscribir un Plan de Trabajo Compartido.

Estarán exentas de la obligación de tener un Plan de Trabajo Compartido suscrito, las unidades convivenciales que soliciten ayuda para los siguientes gastos:

1. Gastos de primera necesidad dirigidos a personas carentes de ingresos que residan en recursos de alojamiento que quedan fuera de la cobertura de la RGI (apartamentos tutelados, Agipad, PH, etc..)

CAPÍTULO III. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE LAS AYUDAS DE APOYO AL PLAN DE TRABAJO COMPARTIDO

Novena. Solicitud y documentación.

La tramitación de la ayuda se iniciará a solicitud de la persona interesada.

La solicitud se presentará en los Centros de Servicios Sociales, el Servicio Municipal de Urgencias Sociales, en el Servicio de Tercera Edad, el Centro Municipal de Acogida Social o en el Servicio de Mujer conforme a lo previsto en el artículo 16 de la Ley 39/2015.

Deberá acompañarse a la solicitud la siguiente documentación a efectos de acreditar la condición de beneficiario/a:

1. Fotocopia de un documento acreditativo de la identidad del solicitante y del resto de los miembros de la unidad convivencial.
2. Documentos acreditativos de la situación económica de la unidad convivencial: certificados bancarios, recibos de pensiones, certificados de bienes de Hacienda de Gipuzkoa y estatal, nómina, prestación por desempleo, declaración de IVA, etc.
3. Según establece el art. 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las AAPP, los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. Por ello, El Ayuntamiento de San Sebastián indicará en cada formulario que documentos podrá consultar o recabar salvo que la persona interesada se opusiera a ello. En caso de oponerse, el interesado deberá presentar la documentación exigida.
4. Además, de acuerdo con la normativa aplicable, el órgano instructor de este procedimiento podrá comprobar de oficio en



eskudunean prozedura ebazteko eskatutako hainbat dokumentu. Inprimakietan zehaztuko da zein izango diren egiaztapen horiek.

5. Ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori ekartzea eskatzaileak, eskaera egiten duen momentuan, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen baditu, betiere seigarren oinarriko 1. puntuan, f) letran, iii atalean aurreikusitako salbuespena badagokio, banku-saldo eguneratuak izan ezik, hauek beti eskatuko baitira.

6. Laguntza merkatuan eskura daitekeen ondasun edo zerbitzu bat finantzatzeko eskatzen bada, espezialista eskudunaren txostena aurkeztu beharko da, bai eta, gutxienez, aurrekontu bat ere. Udalak egiaztatu ahal izango du aurrekontu hori merkatuko prezioekin bat datorren.

Hamargarrena. Espedientea izapidetzea.

Kasuaz arduratzen den Gizarte Ekintzako Zuzendaritzako teknikariak egingo ditu espedientearen izapideak. Honakoak sartuko ditu espedientearen:

1. Lan Partekatua Plan edo, hala badagokio, plan horren azken aldaketa, onuraduna izan daitekeenak behar bezala sinatuta eta noiz arte iraungo duen zehaztuta. Hori guztia I. eranskinean eta 6.2 oinarrean kasu batzuetarako aurreikusten diren salbuespenak gorabehera.

Plana, bertan adierazitakoaren arabera jarriko da indarrean, eta laguntza ematea ez da hura aplikatzeko beharrezko baldintza izango, planak berak hala arautzen ez badu behintzat.

2. Proposamen-txostena, laugarren oinarrian azaldutakoaren arabera.

Kasuaren arduradunak Lan Partekatua Plan Babesteko Laguntzetarako Batzorde Teknikoari helaraziko dio espedientea.

Hamaikagarrena. Ebazpen-proposamena.

Laguntza hauetarako Batzorde Teknikoak laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena egingo dio organo eskudunari. Batzorde horrek txostenean informazio gehiago jasotzeko eskatu ahal izango dio kasuaren arduradunari.

Batzordearen proposamena ez badator bat kasuaren arduradunak egindakoarekin, Batzordeak argi eta garbi azaldu beharko du horren zergatia bere proposamenean.

la administración competente diferentes documentos requeridos para resolver el procedimiento. En los formularios se detallará cuales serán tales comprobaciones.

